Bakioko Udala
Ayuntamiento de Bakio

BAKIO udala

2. Zbk. **ABUZTUA**
AGOSTO 2018



# BAKIO bizi

## Jaietan gozatu eta elkar errespetatu!

Gure artean ez daudenak oroituz,
jai giroa goza dezagun!
Eta gogoratu, ezetza, beti ezetza dela!

Bakio herri berezi bat da, industriarik ez duelako eta sektore turistikoa oso estazionalizatua duelako. Bakioko Udalak epe ertainera duen erronketariko bat da enpleagagarritasuna handitzeko baldintzak hobetzea.

El nuestro es un municipio singular, sin apenas industria y con un sector turístico todavía estacionalizado en verano. Uno de los retos que tenemos a medio plazo es generar condiciones para poder incidir en la empleabilidad de las personas.

## El empleo, uno de nuestros retos

# ENPLEGUA SORTZEN GURE HERRIAN

2012. urtetik Bakioko Udalak Eskualdeko Enplegu Planean parte hartzen du, lana eskuratzeko zailtasunak dituzten herritarrei laguntzeko administrazio publikoan lan egiteko aukerak sortuz. Plan hau Lanbidek sustatzen eta diruz laguntzen du.

Desde el año 2012, el Ayuntamiento colabora junto con los demás municipios de la comarca, dentro del marco del Plan de Empleo, para ayudar a personas con difícil acceso al mundo laboral y en riesgo de exclusión social. Para ello, trabajamos creando oportunidades para que estas personas trabajen en diferentes áreas del Ayuntamiento. Este plan de empleo está sujeto a convocatorias de Lanbide, creadora y dinamizadora de los mismos.

### Bakiok urtebetean 10 langabetu gutxiago ditu

### En Bakio se han reducido en 10 las personas paradas en el último año

LANGABE KOPURUA / NÚMERO DE PARADOS/AS

| | GUZTIRA/TOTAL | GIZONEZKOAK/HOMBRES | EMAKUMEZKOAK/MUJERES |
|---|---|---|---|
| Arrieta | 22 | 9 | 13 |
| **Bakio** | **119** | **54** | **65** |
| Fruiz | 22 | 9 | 13 |
| Gamiz-Fika | 55 | 27 | 28 |
| Gatika | 66 | 29 | 37 |
| Laukiz | 36 | 19 | 17 |
| Maruri/Jatabe | 28 | 15 | 13 |
| Meñaka | 17 | 8 | 9 |
| Mungia | 862 | 330 | 532 |
| **Mungialdea** | **1.227** | **500** | **727** |
| **Bizkaia** | **70.549** | **31.143** | **39.406** |
| **Euskadi** | **122.801** | **52.830** | **69.971** |

Lanbidek 2018ko maiatzean argitaratuko datuak • Datos publicados por Lanbide en Mayo de 2018.

# Udalaren kontratazioak

## Refuerzo de personal

Urtez urte Udalak kontratatzen duen langile kopurua igo egin da, batez ere udan sortzen diren beharrizanei aurre egin ahal izateko. Bakion populazioa nabarmen igotzen da udan eta oinarrizko zerbitzuak indartzea beharrezkoa izaten da. Bereziki, 2018an, brigadari laguntzeko peoiak, udaltzaina eta arreta zerbitzuko beharginekin batera beste bi administrari kontratatu dira. Guztira, 9 lagun kontratatu ditu Udalak 2018an.

En los últimos años ha crecido el número de contrataciones realizadas por el Ayuntamiento, debido sobre todo para responder a las necesidades estivales. La población de Bakio aumenta notablemente en verano por lo que hay que reforzar los servicios básicos. Especialmente, en el 2018, junto a los peones de la brigada, policía municipal y una persona con perfil administrativo para reforzar la labor del área de atención a las personas, se han hecho dos contrataciones nuevas con perfil administrativo. En total, el Ayuntamiento ha contrato a 9 personas en 2018.

## Nueva gestión del polideportivo

# Kudeaketa berria kiroldegirako



Emptesport S.L eta Argibide Asistencia Social y Deportiva S.L. aldi baterako enpresen elkartearekin kiroldegia hiru urteetan kudeatzeko kontratua sinatu du Bakioko Udalak. Hurrengo asteotan etxeetara bidaliko da honen gaineko informazioa.

El Ayuntamiento de Bakio ha firmado el contrato para la gestión del polideportivo durante los próximos tres años con la UTE Emptesport S.L. y Argibide Asistencia Socia l y Deportiva S.L. En las próximas semanas se buzoneará toda la información relativa al servicio.

Kontratu berriak Udalarentzat duen gastua • El nuevo contrato tendrá este coste para las arcas municipales

| 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|
| 195.555,79 € | 200.233,27 € | 204.980,91 € |

### Telefono erabilgarriak eta larrialdietan erabiltzeko telefonoak
### Listado de teléfonos útiles y de emergencias

Larrialdiak
Emergencias
**112**

Bakioko Osasun Zentroa
Consultorio Médico de Bakio
**94 619 42 07**

Mungiako Osasun Zentroa
Consultorio Médico de Mungia
**94 600 71 50**

Larrialdiak (Osakidetza)
Emergencias Médicas (Osakidetza)
**94 410 00 00**

Bakioko Farmazia
Farmacia de Bakio
**94 619 44 72**

Bakioko Udaltzaingoa
Policía Municipal de Bakio
**656 788 623**

Gernikako Ertzaintza
Ertzaintza de Gernika
**94 465 34 90**

Bakioko Udala
Ayuntamiento de Bakio
**94 619 40 01**

Bakioko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Bakio
**94 619 33 69**

Bakioko Urkitza Ikastetxea
**94 619 42 12**

Haurreskola Bakio
Guardería de Bakio
**94 619 40 79**

Turismo Bulegoa
Oficina de Turismo
**94 619 33 95**

Txakolingunea
**94 602 85 13**

Kiroldegia/Polideportivo
**94 619 32 31**

Garbigunea
**94 619 48 40**

Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales
**94 615 55 51**

Behargintza (Mungia)
**94 615 62 44**

Lanbide (Mungia)
**945 160 600**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
**94 487 31 87**

BizkaiBus
**94 612 55 55**

Taxia Ruper
**662 698 014**

Taxia Iban
**688 899 170**

**GENERO INDARKERIA**
**VIOLENCIA DE GÉNERO**
**016**



Eusko Jaurlaritza (SATEVI)
**900 840 111**

Bizkaiko Foru Aldundia (Tartekari Sarea)
**688 727 193**

Entzuteko eta hitz egiteko arazoak badituzu:
Discapacidad auditiva y/o del habla envía SMS al:
**600 123 112**

**2018ko ekaineko osoko bilkuran, Solozarreko urbanizazio-obrak behin betiko exekutatu eta 8. Partzelaren eraikuntza arautzeko hitzarmena sinatu du Udalak.**

En el pleno municipal de Junio, el Ayuntamiento aprobó el Convenio Urbanístico que va a posibilitar la ejecución definitiva de las obras de urbanización de Solozarre y la edificación de la parcela 8.



# KONPONTZEKO BIDEAN

# Solozarre

## Dando pasos hacia la solución

Solozarre sektorea 2006an diseinatu zen eta Nazape ingurua, Albobide eta Goienkale hartzen ditu. Obrak hiru zatitan exekutatu ziren: lehenengo, 2008an, udal-kiroldegiaren gunea eta BOEetako gunea exekutatu zen eta, bigarrenik, Albobide eta Goienkale. Eta exekutatu gabe utzi zen partzelaren zati bat. (1 argazkia)

Gaur egun, mugikortasun-arazoak ditugu ondorioz, bai ibilgailuentzat, bai oinezkoentzat, eta herriko gune arriskutsuenetako bat da ingurua. Albobide kalea moztuta dago Bekoerrota baserritik gertu. Arrien etxe albotik Goienkalerekin egindako lotura, berriz, behin behinekoa da.

Exekutatu gabeko urbanizazio-obra horiez gainera, sektorea amaitu gabe dago, eta 4 etxebizitza daude egiteko alboko orriko argazkiko irudian ikusi daitekeenez (2 argazkia). Partzela hori eraikitzeko eta urbanizatzeko betebeharra "José Antonio Olabarri Construcciones S.L." enpresari dagokio.

El sector Solozarre se diseñó en 2006, y engloba la zona de Nazape, Albobide y parte de Goienkale. Las obras se dividieron en tres partes: primero se ejecutó la zona del polideportivo municipal y la zona de las VPO en 2008; en segundo lugar, Albobide y parte de Goienkale. Y se dejó sin ejecutar una parte de la parcela. (foto 1)

Como consecuencia, la calle Albobide se encuentra cortada a la altura del caserío Bekoerrota y la unión de Goienkale a la altura de la casa Arrien se hizo de forma provisional. Ello está generando problemas de movilidad para los vehículos y peatones, siendo una de las zonas más peligrosas del pueblo.

Además de las obras de urbanización (foto 2), falta construir 4 viviendas en la parcela. Tanto la obligación de construir como de urbanizar le correspondía a la empresa "José Antonio Olabarri Construcciones S.L.".



**Exekutatu gabeko partzela**
Parcela sin urbanizar



1



2

**4 etxebizitza egiteko partzela**
Parcela para la construcción de 4 viviendas

Administrazio publikoek obrak eta proiektuak esleitzen dituztenean, adostutakoa betetzen dela bermatzeko eta obrak amaitu gabe ez geratzeko, kontratatzen diren enpresek abalak uzten dituzte, legeak ezarritakoaren arabera. Era horretan, arazoak badaude eta enpresek adostutakoa betetzen ez badute, Udalak diru-gordailuarekin lanak burutu ditzake.

Solozarreren kasuan, 2009ko martxoan, alkatetza-dekretuaren bidez, urbanizazioaren enpresa arduradunari (Moldis Echarro S.L) abala bueltatzea erabaki zen, lanak amaitu gabe. Txostenean argi adierazita dago, abala bueltatzeko lanak amaituta daudela ziurtatzen duen txosten tekniko bat behar dela.

Ordutik, enpresari sarri esan zaio duen erantzunkizuna bete eta hasitakoa bukatu dezala. Inork ez du ardurarik hartu eta, gaur egun, enpresa likidazio-prozesuan dago.

Cuando las administraciones públicas adjudican obras y proyectos, para garantizar el cumplimiento de lo acordado y evitar que las obras queden sin acabar, las empresas contratadas depositan avales de acuerdo con lo que indica la ley. De esta forma, si surgen problemas y las empresas no cumplen con lo acordado, el Ayuntamiento puede ejecutar las obras con la cantidad depositada como aval, evitando que se generen problemas a la comunidad.

En el caso de Solozarre, en marzo del 2009, mediante Decreto de Alcaldía, se decidió devolver el aval a la empresa contratada (Moldis Echarro s.I) sin haber acabado las obras. En el expediente constaba un informe diciendo que para devolver el aval debía emitirse un informe técnico certificando que las obras de urbanización se habían acabado.

Desde entonces, aunque se ha reclamado en varias ocasiones a la empresa que cumpla sus obligaciones y finalice la obra, nadie ha respondido a dichas exigencias, y actualmente dicha empresa está en proceso de liquidación.

# KONPONBIDEA

## El convenio como solución

Solozarren eraikitzeko falta den partzelak 355.000€ hirigintza-kargak ditu gaur egun. Ekaineko osoko bilkuran Udalak behin behinean onetsi zuen oraintsu partzela erosi duten pertsonekin hitzarmena adostea. Bi herritarrek hitzarmen honen kontrako alegazioak aurkeztu ondoren Udalari dagokio hurrengo asteetan horiek erantzutea eta behin betiko erabakia hartzea. Era horretan, Bakion hainbat zirkulazio eta segurtasun arazo sortu dituen inguruneari irtenbidea emango zaio.



La parcela que falta por construir en Solozarre tiene unas cargas de urbanización de unos 355.000€. En el pleno municipal de junio se aprobó inicialmente firmar un convenio con las personas que han comprado la parcela recientemente. Ha habido dos alegaciones en contra de este convenio; una vez resueltas el Ayuntamiento tomará la decisión definitiva para solucionar los problemas de circulación y seguridad de la zona.

# PLASTIKOEN
## Erabilera murrizteko konpromisoa




Haria Elkarteak eta **Bakio Surf Taldeak** plastiko gutxiago erabiltzeko abiatutako kanpaina aprobetxatuta, Bakioko Udalak ekaineko osoko bilkuran plastiko gutxiago erabiltzeko konpromisoa hartu zuen.

Esate baterako, hondartzako hiru sarreretan zigarro puntak batzeko hautsontzi berrerabiliak jarri dira jada hondartzako erabiltzaileen eskura; bestalde, kaleko paperontzietan poltsa biodegradagarriak jarriko dira. Gainera, Udalak edalontzi berrerabilgarriak erosi ditu jaietan herriko txosnetan erabiltzeko.


deia

# Desprendimiento de laderas

A consecuencia de las intensas lluvias de los meses de invierno y primavera, el Ayuntamiento ha tenido que actuar en dos laderas de propiedad municipal: una en la zona del muelle, junto al edificio Portugane, y la otra en la zona de Renteria.

El coste de la ejecución de los proyectos y de las obras ascenderá a unos 280.000€. Para poder ejecutar las obras sin condicionar el equilibrio presupuestario, el Ayuntamiento ha pedido ayuda a la Diputación Foral de Bizkaia y ésta ha subvencionado los trabajos a realizar en un 90%.

Aún siendo conscientes de las molestias que generan los trabajos, se han tenido que ejecutar en verano por la buena meteorología.

# CARTELES


bakiobai

### ORDENAR LA COLOCACIÓN DE CARTELES EN LOS ESPACIOS PUBLICOS

El Ayuntamiento está renovando la ordenanza que regula la colocación de cartelería en los espacios públicos, aprobada en 2009. Este otoño-invierno está previsto comprar nuevos paneles para sustituir los actuales y ampliar las zonas destinadas a tal fin. Además, cuando avancemos en la redacción de la ordenanza, abriremos un proceso de participación para que la gente opine sobre este tema.



**Euskaraldia Euskarak 365 egun lan-ildoaren barruan kokatzen den ekimena da. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua.**

# BAKIOK ERE BAT EGIN DU Euskaraldiarekin



## Ahobizi eta belarriprest

Euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira protagonista, eta, hamaika egunetan, beren ohiko harreman-sareetan euskaraz aritzeko gonbitea egingo zaie, inertziak apurtu eta euskarazko hizkuntza-praktikak bultzatzeko helburuaz. Egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak ahobizi edo belarriprest bihurtuko dira.

**Ahobizi:** lehen hitza euskaraz egingo dute beti
**Belarri prest:** Gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbitea luzatuko diete

> 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da euskaldunak aktibatzeko ekimena aldi berean Euskal Herri osoan, 11 egun euskaraz lelopean.

## Lehen urratsak Bakion

**Ekimena ekainaren 1ean aurkeztu zen Kultur Etxean. Ekitaldian aipatu zenez, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, tartean, auzo eta herri ezberdinetako euskaltzale taldeak, elkarteak, enpresak edo erakundeak.**

**Dagoeneko Euskal Herri osoko 300 udalerrik baino gehiagok eman dute izena. Eta uda amaitutakoan norbanako izen-emateak bilduko dira. Irailaren bigarren hamabostalditik aurrera Euskaraldian parte hartu nahi duen orok eman beharko du izena, belarriprest edo ahobizi izan nahi duen azalduz. Horiek guztiek hartuko dute parte azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskaraldian, 11 egun euskaraz biziz.**

# EGITARAUA
# 2018ko SAN JOAN DOLOZAK

Informazio gehiago: www.bakio.eus

**ABUZTUAK 26, domeka**

17:00 ATXURRE GARAIKURRA FUTBITO TXAPELKETAKO FINALAK
KIROLDEGIAN

**ABUZTUAK 27, astelehena**

16:30 NAGUSIEN UDAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK
FRONTOIAN

**ABUZTUAK 28, martitzena**
**SAN AGUSTIN EGUNA**

11:00 UMEEN UDAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK
FRONTOIAN

Bakioko SUKALKI TXAPELKETEA
ZUBIAURREALDEN

BAZKARIA Frontoian eta, ostean, IRRINTZI TXAPELKETEA
ZUBIAURREALDEN

20:00 JAIEN HASIERAKO KALEJIRA. Txistulariak, buruhandiak, elektrotxaranga, Kietb erraldoiak, Txerokiak eta koadrilak Bentako plazan batu eta udaletxera abiatuko dira. Bakioko Abesbatza taldekoek Bakioko txakolina bananduko dabe ibilaldian.

Ibilbidean, AUTO ZOROEN LEHIAKETEA egingo da.

20:30 TXUPINA eta PREGOIA, Jesus Olazar-en eskutik. Ostean, kalejirea Zubiaurrealderagino.
UDALETXEAN

21:30 Auto Zoroen Lehiaketako irabazleen izena irakurriko dau Marta Txori alkarteak.
ZUBIAURREALDEN

23:00 Kontzertua EZTEN GIRO taldeagaz.
ZUBIAURREALDEN

**ABUZTUAK 29, eguaztena**
**SAN JOAN DOLOZ**

11:00 KALERIK KALEKOA Zubiaurrealdetik Ondarrera Goienkaletik, txistulariek eta buruhandiek lagunduta.

11:30 BAKIOKO X. HERRI MILIA
SABINO ARANA ETORBIDEAN

12:30 ERAKUSTALDIA
URIZARRETAKO LANDETAN

18:00 Umeen mozorro jaia eta GO!AZEN karaokea. Jarraian TXOKOLATADA.
BAKEAN

00:00 MOZORRO GAUA eta DJ-a.
ZUBIAURREALDEN

**ABUZTUAK 30, eguena**
**SAN JOAN DOLOZTXU**

11:00 KALERIK KALEKOA Ondarretik Zubiaurrealderaino kale nagusitik, txistulariek eta buruhandiek lagunduta.

11:00 BAKIOKO SORTZAILE ETA EKOIZLEEN HERRI AZOKA, Txerokiak girotuta.
FRONTOIAN

11:30 UMEENTZAKO SLIME TAILERRA
ZUBIAURREALDEN
(eguraldia txarra egin ezkero, probalekuan).

13:00 BAKIOKO VIII. TOMATE LEHIAKETEA
FRONTOIAN

14:30 NAGUSIENTZAKO BAZKARIA
GURE ETXEAN

16:30 MUS ARINA TXAPELKETEA
PROBALEKUAN

17:30 XXVIII. TORTILLA LEHIAKETEA. Arraultzopilen aurkezpena 19:00etan.
ZUBIAURREALDEN

22:00 DEABRU BELTZAK piroteknia taldearen Kalejira
UDALETXEKO PLAZATIK FRONTOIRA

**ABUZTUAK 31, barikua**
**ENEPERI EGUNA**

12:00 PAELLA LEHIAKETEA
URIZARRETAN

22:00 SUZKO ZEZENAK eta ANITA PARKER taldearen kontzertua
ZUBIAURREALDEN

**IRAILAK 1, zapatua**

17:00 5-11 URTEKO UMEEN III. BIZIKLETA SLALOMA
BAKEAN

19:00 KALEJIRA FEMINISTA
ONDARRETIK ZUBIAURREALDERAGINO

19:00 PENALTI TXAPELKETEA (18 urtetik gorakoentzat).
ONDARREN

22:00 BASEHERRI SOUND DYSTEM, TITANIANS, LOVATO ETA KENNA I taldeen kontzertuak
ZUBIAURREALDEN

**IRAILAK 2, domeka**

9:00 BAKIOKO BASELEIZA ETA TXAKOLINDEGIEN XII. IBILALDIA
SABINO ARANA ETORBIDEAN



# "Umeari txupetea gustatzen zaien antzera, nik lehiaketa gastronomikoak atsegin ditut"



Aurten San Joan Dolozak jaietako pregoilari **Jesus Olazar** izango da. Aurkezpen askorik ez du behar bakiotar honek. 80 urte bete ditu urtarrilaren 1ean eta herriko taldeek bera aukeratu dute jaien hasieran protagonista nagusi izan dadin.

**Pregoilari aukeratu zaituzte. Pozik?**
Baten batek izan behar du eta ni ipini naute. Horretarako adinik ote dudan zalantza daukat, baina... proposatu badidate ezetzik ez dut esango ezta? Akaso, azkena ere izango da-ta... Gustatzen zaizkit horrelakoak, mikrofonoa eskuetan hartzea eta bateri eta besteari zeozer esatea.

**Jaieta zelan pasatzen duzu?**
Oso ondo, beti. Berez, jaia dagoen lekua ez zait larregi gustatzen. Nahiago dut, alborago ibiltzea. Jaigunean edari asko egoten da eta ni inguruetan ibiltzen naiz gehiago eta gusturago.

**Zein da gustokoen duzun ekitaldia?**
Egiten diren lehiaketa guztiak. Umeari txupetea gustatzen zaien antzera, nik lehiaketa gastronomikoak atsegin ditut. Eta gero neuk asmatzen ditudanak mikrofonoa hartuta. Min egitea ez da izaten asmoa, baina bromatxoren bat edo beste egitea gustatzen zait. Aurten, Mañun eta Almiken ere izan naiz horrelakoak egiten.

**Jaiak ondo pasatzeko zer edan eta zer jaten duzu?**
Edan larregi ez da egin behar, jan bai jan ondo. Jateko oso onak daude gaur egun... sukalkian egiten den gisatua, marmitakoa... gero arraina... Dena dela, gorputzari ez zaio eman behar eskatzen duen guztia; suabe ibili behar da.

**Jaiak asko aldatu dira?**
Lehengo aldean bai. Kalendarioan gero eta gorri gehiago dago. Bakion ikusten dut, lehengo aldean, jende gutxik egiten duela lana. Ez dagoelako, edo ez dugulako gura. Zenbat ordaintzen den galdetzen da lehenengo. Andrak bakarrik lan egiten dabe...

**Eta San Joan Dolozak asko aldatu dira?**
Lehen ere politak ziren eta orain ere bai. San Joan egunean bermeotarrak etorten ziren, tarteka trastadaren bat egiteko. Orain gero eta gutxiago datoz. San Joan Dolozak politagoak dira, Bakion bertan egiten dira. Tomatearena, Jon Pelik egiten duen sukalkia bera.

**80 urte eta jai gogoz zaude oraindik. Zein da sekretua?**
Nik ez dakit. Nik gabaz beti pentsatzen dut hurrengo egunean zer egin behar dudan, eta egiten ez badut umore txarrean geratzen naiz. Beraz, egin eta aurrera. Ardura handirik ez daukat nire adinean, hurrengo egunerako zeregin bat aurkitzea baino.

**Jaietarako desio bat...**
Osasuna eta bakea, Euskal Herrian, baina batez ere Bakion. Eta gero etorriko da lapiko betea, dudarik ez daukat.

2018ko aurrekontua diseinatzeko, 2017an martxan jarritako prozesuaren bitartez, Bakioko Udalak hartutako konpromisoen jarraipena da honakoa. Hain zuzen, aurreikusitako inbertsioen betetze-maila.

En el proceso participativo iniciado en 2017 para elaborar el presupuesto del año 2018, el Ayuntamiento adquirió una serie de compromisos que van cumpliendo a lo largo del ejercicio. Este es un repaso de las inversiones planificadas.

# Aurrekontuen BETETZE-MAILA

Cumpliendo con los compromisos




## Bukatutakoak
Terminadas

### Atxulo

Udalak Atxulo inguruan obrak egin ditu saneamenduarekin urteetan egondako arazoak konpontzeko.

Se ha actuado en la zona de Atxulo para arreglar el problema del saneamiento.

### Edukiontzi berriak

Zaborrontzi berriak erosi dira.

Se han comprado nuevos contenedores.

## Egiteko bidean
En fase de ejecución

### Eskolako aterpea
Cubierta de la escuela

Obrak INDENORT PV S.L.-ek eta Proviser Iberica S.L-ek osatzen duten UTEari esleitu zaizkio eta abuztuaren bukaeran hasiko dira.

La UTE formada por las empresas INDENORT PV S.L. y Proviser Iberica S.L ha sido la adjudicataria de las obras, que comenzarán a finales de agosto.

### Skatepark

ROIG I FILLS ASSOCIATS, SA ( SPOKORAMPS) enpresari esleitu zaio skate parkea hobetzeko obra. Lanak ezin izan dira hasi aurreikusitako sasoian, enpresa beste obra batean atzeratu egin delako. Horregatik eta segurtasunagatik, obrak irailaren 3an hasiko dira.

Se le han adjudicado las obras a la empresa ROIG I FILLS ASSOCIATS, SA (SPOKORAMPS). Como la empresa se ha retrasado en otra obra anterior, no ha podido empezar los trabajos en Bakio en el tiempo previsto. Por motivos de seguridad las obras comenzarán el 3 de septiembre.

### HAPO idazteko lanen kontratua
Contratación de la redacción del PGOU

Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra idazteko lanak datozen egunotan esleituko dira.

La redacción del Plan General de Ordenación Urbana está en proceso de adjudicación.



### Sabino Aranako garajeen konponketa
Arreglo de los garajes de Sabino Arana

2014. urtean, Sabino Arana etorbideko garajeen jabeek Udala eta enpresa konstruktorea salatu zituzten itoginak zirela eta. Epaileak arrazoia eman zien auzokoei eta konponketak egitera kondenatu zituen udala eta konstruktorea. Udala ordaintzeko errekerimenduaren zain dago.

Las personas propietarias de los garajes de Sabino Arana denunciaron en 2014 ante el juez tanto al Ayuntamiento como a la empresa constructora, por goteras en sus parcelas. El juez les dio la razón y dictó orden para que la empresa constructora y el Ayuntamiento procedieran a subsanar las deficiencias. El Ayuntamiento se encuentra a la espera de recibir requerimiento para pagar lo que le corresponde.

### Autokarabanen parkinga
Parking de autocaravanas

Dagoeneko proiektua eginda dago eta obrak irailean kontratatuko dira.

El proyecto ya está definido y en septiembre se procederá a contratar las obras para su ejecución en el actual parking "La Benta".

### Ibarratorre bideko hobekuntza integrala
Mejora integral de la zona de Ibarratorre

Ibarratorre kalea hobetzeko obren proiektua bukatuta dago. Proiektuak bidea zabaltzea aurreikusten duenez, lurraren jabeekin negoziatzen ari da. Batekin akordioa lortu ondoren, hitzarmena idatzi da, eta bestearen kasuan expropiazio-expedienteari hasiera emango zaio lurra eskuratzeko. Tramite administratibo hauek egin bitartean, proiektua URAra bidali da bere oniritzia eman dezan.

El proyecto de las obras está terminado. Como el proyecto prevé ampliar el vial, el Ayuntamiento está ultimando los acuerdos para conseguir el suelo necesario para ello. Con una de las personas propietarias ya se ha llegado a un acuerdo y con la otra parte se iniciará un expediente de expropiación. Mientras tanto el proyecto que define las obras que se harán se ha enviado a URA para que dé su visto bueno y poder empezar.



**Ibarratorre gaur egun**
Ibarratorre en la actualidad

## Gardentasuna Transparencia

Hiru hilerik behin ekonomia saileko teknikariek txosten bat egiten dute eta osoko bilkuran aurrekontuaren exekuzioaren berri ematen da. Udaleko ekonomiaz edozer jakin nahi duten herritarrek informazioa eskuragarri daukate link honetan **http://zabaltzen.bakio.eus#**, Gardentasuna izeneko atalean.

Cada tres meses el área económica del Ayuntamiento prepara un informe para dar cuenta al pleno municipal de la ejecución del presupuesto, y hacer público el estado de ingresos y gastos. Las personas que quieran saber más sobre la economía municipal, pueden acceder a toda la información en el link **http://zabaltzen.bakio.eus#**, en el apartado Transparencia.

# AGENDA

# ABUZTUA IRAILA URRIA

**Informazio gehiago**
**Más información**
**94 619 33 69 Kultur Etxea**

## MENDI BETE DIRU ERAKUSKETA

**TXAKOLINGUNEAN**

**Uztailaren 17tik irailaren 2ra**

Del 17 de julio al 2 de septiembre, exposición "Montañas de dinero" en el Txakolingunea.

## BAKIOKO MARGOZALEAK ERAKUSKETA

**TXAKOLINGUNEAN**

**Uztailaren 17tik urriaren 28ra**

Del 17 de julio al 28 de octubre, exposición de pintores y pintoras de Bakio en el Txakolingunea.

## HONDOA JOTAKO ARIMA ERAKUSKETA

**UDALETXEAN**

**Abuztuaren 1etik irailaren 3ra**

Del 1 de agosto al 3 de septiembre, exposición fotográfica de Jon Rodriguez "Alma varada" en el Ayuntamiento.



## SAN JOAN DOLOZAK JAIAK

**Abuztuaren 28tik irailaren 2ra**

Del 28 de agosto al 2 de septiembre, Fiestas patronales San Joan Dolozak.

## IKASTAROAK

**Irailean Musika Eskolan apuntatzeko eta ikastaro desberdinetan apuntatzeko izena emateko epea zabalduko da**

En septiembre se abre el plazo de inscripción para la Musika Eskola y para los cursos.




## PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS

**UDAL KIROLDEGIAN**
**Borobilean ikuskizuna**

**Urriak 5, 18:00etan**



## ¿QUIERES ADOPTAR UN PERRO?

En la web municipal encontaréis un banner para las personas interesadas en adoptar un perro. Disponemos de un servicio de recogida que lo gestiona la empresa "Quincocan". Los perros que se abandonan se llevan a sus instalaciones de Mungia hasta que alguien los adopta.

Además esta empresa, en colaboración con el Ayuntamiento, impartirá formación a las personas que tienen mascotas.